




## Mendiluze: «Gustura geratu nintzen egindako lanarekin»

**TOLOSALDEA** ▶ Larunbatean lortu zuen finalerako txartela; «Agirre oso sendo ikusi nuen, Irazu aurrekoan baino askoz hobeto, txisparekin; eta Mendiluze maisuen pare», dio Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak ▶ 5



Irazu, Mendiluze eta Agirre, larunbatean; lehenak eta hirugarrenak, maila ona eman arren, ezin izango dute finalean aritu. JON URBE / ARGAZKI PRESS

**VILLABONA** ▶

### Merkatu Txikia, presoek elkartasun denda

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jarriko du Eguberrietan; abenduaren 1etik, material bilketa ▶ 4

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** ▶

### Tolosak eta Laskorainek irabazi, Aralarrek galdu

Aurrera-ren partidak bertan behera geratu dira eguraldi kaskarratik ▶ 3, 7

**IBARRA** ▶

### Azkue auzoko 37 etxebizitza sozialak inauguratu dituzte bizilagunek eta agintariek

2003ko uztailaren 11n izan zen etxebizitzaren zozketa; ostiralean kontratua sinatu eta giltzak jasoko dituzte ▶ 6



Bertan biziko direnak, atzo, etxebizitzak barrutik ikusten. I. TERRADILLOS

23. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA ▶

# On Kixote eta itzal txinatarrak nagusi egunotan, Titirijain

Emanaldi asko ikusi ahal izango dira Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian Tolosako lau guneetan eta jaialdiko zirkuitoan, Ordizian, Pasaian eta Irunen



Kataluniako Valeria Guglietti taldearen *Ez ukitu nire eskuak*. HITZA

NOELIA LATABURU

Txotxongilozaleek egun asko dituzte oraindik aurretik jaialdiarekin gozatzeko. Lehen egunak igaro ostean, ikuskizun gehiago izango dira ikusgai. Gaur eta bihar, esaterako, dagoeneko estreinatzen diren emandalak eta estreinatzeke direnak uztartuko dira Tolosako lau guneetan, umeentzat nahiz helduentzat. Tolosan ez ezik, egunotan jaialdiko zirkuitoaren barruan ere izango da zer gozatu. Gaur, hain zuzen, Ordiziako herri antzokian Txekiako De vita marcik konpainiaren *Edurnezuri eta 7 hipotsak* emandakia eskainiko dute, 10:30etan; 18:00etan, berriz, Venezuelako Titeres La Parejaren *Panchito Mandefua* izango da ikusgai. Pasaiaiko San Pedro udal aretoan, 11:00etan, Ar-

gentinako Libertablas-en *David eta Goliat* antzeztuko dute. Biharkoan, berriz, hiru emandalak izango dira: Irungo Amaia aretoan, 11:00etan, Bulgariako Teatro Ariel-en *Jostuntxo ausera*; Ordiziako herri antzokian, 10:30etan eta 18:00etan, Txinako Song song song-en *Heriotzako magistratua*; eta, azkenik, Pasaiaiko San Pedro udal aretoan, 11:00etan, Asturias-eko (Espainia) Teatro Plus taldearen *Egia da, egia da*.

**Erfreuliches theater erfut (Alemania)**. Eva Noell, Paul Olbrich eta Ronald Mernitz 80. hamarkadaren erdialdetik aurrera theater Waidspeicher Erfut konpainiarekin arrakasta handia izan zuten hiru txotxongilolaria dira. Hiruek txotxongiloa ikasi zuten Berlingo Ernst Busch Aktore Eskolan eta ordutik txotxongilolaria, txotxongilo ikuskizunetako zuzendari, egile eta hizlari gisa lan egin dute. Haur eta helduentzako ekoizpen asko taularatu eta antzeztu dituzte. Oraingoan, *Koloretako erregina* izeneko lana aurkeztuko dute.

**Targovishte puppet theater (Bulgaria)**. Targovishte Bulgariako txotxongilo antzerkia 1960ean eratu zen. Bere sormen historian zehar 120 ikuskizun baino gehiago egin dituzte, eta 2.000.000 ikusleek baino gehiago ikusi dituzte. Antzerki taldearen lan bilduman munduko dramartugiako egile klasiko eta garaikideen antzezlana aurkitzen dira. Ur-

teetan lortutako izendapen ospetsu ugari gehitzen zaizkio. Gure jaialdian *Mutikoa eta hainzen lana* aurkeztuko dute.

**Quanzhou marionette troupe (Txina)**. Taldea Quanzhouko udal gobernuak eratu zuen 1952an; gaur egun, 50 artista, 300 Que Lei Tune trdazional eta 700 lan tradizional gehiago ditu. Gainera, harizko txotxongiloarentzat arau multzo bat sortu dute. Azken 50 urteetan, konpainiak ikuskizun kopuru handia sortu eta Txina osoan eta beste 40 herrialdeetan antzeztu ditu. Konpainiak bere antzeppen bikain eta disdiratsuei esker ospea lortu du. Datozen egunotan *Ilusioaren harian* aurkeztuko dute.

**Angeles de trapo (Uruguai-Andaluzia, Espainia)**. 1985ean Iolanda Atalla Barsilgo antzerkiko partaide iraukorrekoak eta Julio Gallok Angeles de trapo txotxongilo konpainia sortu zuten Uruguain, demokrazia garaiko txotxongiloen lehenengo topaketa *Titirilandia* estreinatuz. Ordutik, txotxongilo ekintza oparo batekin jarraitzen du taldeak, jaialdi eta topaketa ugariatan parte hartuz. Txotxongilo espazioan garatutako ekintza hauei publizitate, laburmetriak, kable bidezko telebista programak, eskoletako kanpainak... eranstean zaizkie. *On Kixote ahaztezina* lana antzeztuko dute jaialdian.

**Baruti al filo de los hilos (Grezia)**. Francisco Britok eta Vula Kurok osatzen duten taldea ikerketa eta txotxongilo eta objektuen eraikuntza tailerra bezala hasi zen. Bere ibilbidean zehar, gaur arte, teknika berezia garatuz esperientzia ballagarriak bildu ditu, hots-ijuin ingurune batean gizakiaren mugimendua naturaltasunez imitatzen duten txotxongiloak erabiliz. Panpinak bizitza hartzen du ariman sentsazio sakonak esnatuz, ikuslea ezinezkorik ez dagoen mundu majiko batera eramanez. Gurera *Ekialdeko misterioa* ekarriko dute.

**Valeria Guglietti (Katalunia)**. Argentinako kostaldeko Villa Gesell herrian eratuako konpainia da; bertan bere lehenengo ikuskizuna aurkeztu zuen taldeak. Antzezlana honen umoreak, sormenak eta jarioak adin guztietako ikuslegoaren aldeko onarpen handia eskuratu zuen. *Ez ukitu nire eskuak* antzezlana aurkeztuko dute, umorez betetako istorio bilduma da lana, eta itzal txinatarrarekin, zinema mutuarekin, txotxongilorekin, komikiarekin eta musikarekin topo egingo dute ikusleek.

## EGITARRUA ▶

### GAUR

**Kultur Etxea**. Txinako Quanzhou mar troupe taldeak *Ilusioaren harian* aurkeztuko du, 10:30etan, 15:00etan eta 18:30etan.

**Kasinoa**. Greziatik etorritako Baruti al filo de los hilos taldea, *Ekialdeko misterioa* lanarekin, 11:00etan eta 15:00etan. Gualdean, Kataluniako Valeria Guglietti taldea ariko da, *Ez ukitu nire eskuak* helduentzako lanarekin, 20:30etan eta 22:30etan.

**Beotibar pilotalekua**. Txinako

Guandong puppet theater, *Lignango hagaboen magia* lanarekin, 11:00etan eta 15:00etan.

**Gorosabel auditorioa**. Bulgariako Targovishte puppet theatre taldea *Mutikoa eta haizea* lanarekin, 12:00etan, 15:00etan eta 17:30etan.

### BIHAR

**Kultur Etxea**. Uruguako eta Andaluziako Angeles de trapo taldea *On Kixote ahaztezina* lanarekin, 10:30etan, 15:00etan eta 18:30etan.

**Kasinoa**. Txinako Quanzhou

mar troupe taldeak *Ilusioaren harian* aurkeztuko du, 11:00etan eta 15:00etan.

Gauean ere emandakia bera eskainiko dute helduentzat, 20:30etan eta 22:30etan.

**Beotibar pilotalekua**. Txinako Guandong puppet theater, *Lignango hagaboen magia* lanarekin, 11:00etan eta 15:00etan.

**Gorosabel auditorioa**. Alemaniako Erfreuliches theater erfut taldea, *Koloretako erregina* emandalarekin, 12:00etan, 15:00etan eta 17:30etan.

## iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.:616 93 17 88



**Tolosa**. Duplex-a salgai.

Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela 1.

Trastelekuekin.

44.000.000 pezeta.

Ebesagasti 943 69 68 56.

**Tolosa**. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun.

Oso eguzkitsua. Ezin hobea.

Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa**. 96 m2ko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea,

3 logela eta komun 1.

Trasteleku eta garajearekin.

Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa**. Bizitzeko moldatutako

bulegoa. Ebesagasti.

943 69 68 56.

**Tolosaldea**. Baserria salgai.

Interesatuentzat informazio

personala. Ebesagasti.

943 69 68 56.

**Legorreta**. Hiru logela dituen

etxea berritzeko.

Igogailua du. Ebesagasti.

943 69 68 56.

**Amezket**. Elkarri atxikitako

etxe berria. Ebesagasti.

943 69 68 56.

**Villabona**. Egongela, sukaldea,

3 logela eta bainugela.

Berritua. Ikuspegiek.

38.000.000 pezeta.

Ebesagasti. 943 69 68 56

**Zizurkil**. Egongela,

sukaldea, 3 logela

eta bainugela.

Berokuntza, igogailua eta

trastelekuarekin. Ebesagasti.

943 69 68 56.

**Eskaera handia** dela eta,

etxebizitza, bakarkako etxeak,

baserriak eta nekazal

eta hirigintzarako lursailak

behar dira, alokairuan

edo salmentan

Tolosaldean.

FUTBOLA ▶

# Erraz irabazi dio Tolosa CFk Aurrera Vitoria taldeari (4-0)

Horrenbestez, seigarren dira Tolosakoak sailkapen orokorrean, 20 punturekin

## TOLOSA ▶ 4

### AURRERA ▶ 0

**Tolosa CF.** Santamaria, Gorka, Artola, Jon Txiki, Lacalle, Romero, Orue, Azpiroz, Jauregi (Crespo), Aimar eta Irazusta.

**Aurrera Vitoria.** Guzman, Saez, Calderon Beitia, Lopez Garmendia, Portulagomez, Ruiz de Alegria, Alvaro Saenz, Perez, Hernando eta Ibarondo.

**Golak.** 1-0: Artolak (34m.); 2-0: Aimarrek (70m.); 3-0: Crespok (78m.) eta 4-0: Irazustak (90m.).

**Ikusleak.** Nahiko gutxi izan ziren larunbatean Berazubira joan zirenak.

## SAILKAPENA ▶

### HIRUGARREN MAILA

Taldea	I	B	G	P
1. Sestao	9	3	2	30
2. Gernika	8	4	2	28
3. Baskonia	6	7	1	25
4. Laudio	5	7	2	22
5. Amorebieta	5	6	3	21
<b>6. Tolosa</b>	<b>4</b>	<b>8</b>	<b>2</b>	<b>20</b>
7. Arenas	5	5	4	20
8. Santurtzi	4	7	3	19
9. Lagun Onak	5	3	6	18
10. Eibar	4	5	5	17
11. San Pedro	4	5	5	17
12. UPV-EHU	4	5	4	17

### IRATXE ETXEBESTE

Garaipen erraza izan zen Tolosa CF taldeak larunbatean Berazubira lortutakoa. Aurrera Vitoriari 4 eta 0 irabazi zioten, izan ere, Luluagaren eta Mendizabalen mutilek. Tolosako jokalariek eta zuzendaritzako ki-deak beldur ziren partidua hasi aurretik, haien esanetan, Berazubiko zelaia ez zuelako itxura onik. Azken egunotako euriteak eta hotzak ez zuten ordea, zelaian inolako arazorik sortu, eta lokatz putzutan jardun gabe jokatu ahal izan zuten tolosarrek.

Neurketaren hasieran eskas aritu ziren Tolosa CFkoak. Makal. Lehen hogeitun minutuetan nagusitasunez jardun zuen Aurrera Vitoria taldeak. Etxekoek ez zuten baloiaren jabe izatea lortzen, eta, ildo horretatik, kostatu egin zitzaizten jokoa behar bezala heltzea. Hogeita bosgarren minututik aurrera, baina, aldatu egin zen norgehiagoka. Tolosakoak burubelarra hasi ziren neurketa mendean hartzeko ahaleginean, eta lortu egin zuten helburua.

34. minutuan Artolak sartu zuen tolosarren aldeko lehen gola, Jauregi abian jarritako jokaldia borobilduz. Horren aurrean, Aurrera Vitoriak gogor ekin zion lehiari, eta aurrelarien lana indartzen saiatu



Berazubira jokatu zuen larunbatean Tolosak; artxiboko irudia da. HITZA

zen gasteiztarren entrenatzailea. Atezaina babes handirik gabe utzita, gol aukera handiak izan zituen Tolosak, baina ez zituen behar bezala baliatu. Etxekoek lehen gola sartu, eta zortzi minuturen buruan Aurrera Vitoriako jokalaria Ruiz de Alegria zelaitik kanpora bidali zuen epaileak bi txartel aterata. Geroago bederatzi jokalariek geratu zen Gasteizko taldea.

Bigarren zatian Tolosa CFk izan zuen uneoro partidua kontrolpean, eta norgehiagoka irabazteko ahaleginak egin zituen. 70. minutuan sartu zuen Aimarrek etxekoak bigarren gola. Aurkariek falta egin, eta Jon Txiki ateratu zuen sakelari erantzun bikaina eman zion golegileak. Hirugarrena zortzi minutu beranduago egin zuen

Crespok. «Ikaragarritzko jaurtiketa gogorra eginda lortu du hirugarrena», zioten haren taldekideek pozarren. Eta laugarrena partiduko azken minutuan sartu zuen Tolosakoek. Zehazki, 90. ean sartu zuen Irazustak bakarkako jokaldi baten bitartez.

Ez zuten tolosarrek eguraldia lagun izan larunbatean, alde batetik, euririk etenik izan ez zuelako, eta, bestetik, hotz handia egiten zuelako. Hala ere, ez zuen arazorik izan neurketa irabazteko. Datorren aste-aste Sestao jokatu du Tolosak hango taldearen aurka. Hori irabaztea zailagoa izango dela adierazi dute futbol taldeko ordezkariek, 30 punturekin, Sestao lider delako Hirugarren Mailan. Tolosa seigarren da, 10 puntura.

## SASKIBALOA ▶

### 64-48 galdu du Tolosa Aralar taldeak asteburuan

Kadeteek irabazi egin dute 37-85; infantilen taldeak ere erraz lortu du garaipena: 33-22

### I. ETXEBESTE

Liga Interautonomikoan ari den Tolosa Aralar senior mailako taldeak galdu egin zuen larunbatean Ventanas Leonen kontra jokatutako partidua. 64-48ko emaitzarekin amaitu zen azkenean. Kadete eta infantil mailako Tolosa Argysan taldeek ordea, irabazi egin zituzten Easo B eta Andraitzen aurkakoak: 37-85 eta 33-22ko emaitzeekin, hurrenez hurren.

Hurrena abenduaren 8an jokatuko du Tolosa Aralar-ek Galdakaon, 12:00etan. Ibaizabal Bizkarra taldea izango du aurkari egun horretan.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423  
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003  
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134  
▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329  
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720  
▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
▶ **Orendain.** Medikua: 655595  
▶ **Orexa.** Medikua: 682228  
▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 006800  
▶ Gernikako arbola: 006900  
▶ Amaroako dispen.: 672637  
▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ DYA: 672536  
▶ Gurutze Gorria: 674888  
▶ Villabona. Anbulat.: 006970  
▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

**Garraioak.**  
▶ Renfe: 902 24 02 02  
▶ Donostiako autobusa: 361740  
▶ Tolosaldea bus: 650621  
▶ Leitzarar autob.: 948 221015  
▶ Taxia: 670420  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016  
**Besterik.**  
▶ Ertzaintza: 538820  
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858  
▶ Tolargi: 650016  
▶ Iurramendi egoitza: 670325  
▶ Tolosa gasa: 675320

## ARETO FUTBOLA ▶

### Bilboko Altamiraren aurkakoarekin, puntu bat gehiago Laskoraintzat

Bosna berdindu zuten bi taldeek larunbatean Usabalen jokatutakoan; «burumakur» daude

### I. ETXEBESTE

Bosnako berdinketarekin konformatu behar izan zuten larunbatean Laskorainekoek Bilboko Altamira taldearen aurka jokatutako partiduan. Egizabalen mutilek azken bi jardunaldietan jasandako porrotei garaipen batekin erantzun nahi zioten, baina esku-eskura izan

nagatik, ezin izan zituzten jokoa hiru puntuak lortu, eta sailkapeneko hirugarren postuan dagoen Altamirak azken minutuetan sartutako bi golekin Ikastolakoen asmorik onenak zapuztu zituzten.

Hasi bezain laster utzi zuten bi taldeek norgehiagoka borrokatua izango zela, baina bilbotarrek egindako presio sen-

doari berehala erantzun zion etxeko taldeak. Barriolak, Gilek eta Ekik gol bana sartu zuten, eta 3-0 jarri ziren aurretik tolosarrak. Kanpoko taldeak ez zuten amorerik eman, eta atsendaldia baino lehen bi gol sartzeko aukera izan zuten.

Beste bost gol ikusi ahal izan ziren bigarren zatian. «Telletxea gazteak sartutako gol ederri bikain erantzun zioten bizkaitarrek; era berean, taldeko birika den Saldias 5 eta 3koa sartu zuen lau minuturen faltan. Dena den, Altamira talde sendoak segitu egin zuen Domentxeren ate inguruan arriskua sortzen, eta bi jokaldi politei esker berdinketa erdietsi zuten».

Azken unean garaipenak ihes egin izanak («burumakur»

utzi ditu jokalariek, baina «Tolosaldeko areto futbolaren Paul Newman den Egizabal entrenatzaileak ontzat eman zuen berdinketa».

Datorren astean Bizkaira jongo dira Laskorainekoak Iturriondoko taldearen aurka jokatzen. Javi delegatua, Domentxe, Telletxea, Saldias, Yustos, Barriola, Gil, Kalixto, Alonso, Amatriain, Eki eta Arregi jokalariek izan ziren larunbatean. «Aipamen berezia egin nahi diogu Unai Igartua jokalaria ohia, urtetan taldearen euskarri garrantzitsuenetakoa izan ostean, gurekin entrenatzen hasi delako berriro», esan dute Laskoraineko ki-deek.

Alonsoren taldeak 2-3 galdu zuen; Muruak zuzentzen duen bigarren filialak, 7-1 irabazi.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

# Merkatu Txikia, aurten, presoan aldeko elkartasun dendan

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak elkartasun denda jarriko du Eguberrietan Villabonako plazaren inguruko lokal batean

## ERREDAKZIOA

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, urtero legez, presoan aldeko elkartasun denda jarriko du Eguberrietan. «Iaz dendak izan zuen arrakasta ikusirik aurten ere ekimena errepikatzea animatu gara», azaldu dute. Eta, iaz egin bezala, Villabonako plaza aurrean dagoen lokal bat alokatuko dute. Bertan jarriko dute elkartasun denda abenduaren 25etik urtarrilaren 5a arte. Egunero izango da irekita denda, abenduaren 25ean eta 31n izan ezik.

Baina aurtengo elkartasun dendak herritasun bat dakar: bigarren eskuko materialaren Merkatu Txikia. «Guztiok ditugu geure etxeetan jada erabiltzen ez ditugun gauila ezberdinak, eta horietan irtenbide solidario bat emateko aukera eskaintzeko asmoa dugu», azaldu du presoan aldeko mugimenduak ohar batean. «Ho-

nela, Aiztondo bailarako herritar guztiei behar ez dituzuen material guztiak 'presoei oparitzeko' deia luzatzen dizuegu. Arropa, altzariak, jostailuak... edozer gauza hartzeko prest gaude».

## Aurretik, bilketa

Merkatu Txikiaren ekimenean parte hartu nahi duenarentzat Amnistiaren Aldeko Mugimenduak abenduaren 1etik 14ra bitartean bilketa puntu bat ezarriko du: Villabonako Berdura Plaza, hain zuzen ere. Materiala jasotzeko ordutegia ondorengoa izango da: astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbatetan, berri, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Eskaini nahi dena zama handia duen kasuetan, antolatzaileek bereira joango liarteke bila. Aurretik helbidearen berri eman beharko litzateke 943 69 16 10 telefono zenbakian, 16:00eta-

tik 21:00etara. Behin materiala jasota, nolabaiteko tasazioa burutuko dute, eta segidan dendan erakusgai ipini.

Iaz hainbat arropa, apaingarririk eta material jarri zuten salgai elkartasun dendan, gehienak Amnistiaren Aldeko Mugimenduak berak ekoiztuak. Aurten ere material horiek erosteko aukera izango da, aipatutako Merkatu Txikiko gaiak aparte. «Honela, Eguberrietan edozein herritarrek opari merke-merkeak eskuratzeko aukera izango du», diote antolatzaileek.

«Amnistiaren Aldeko Mugimenduak urteak daramatza preso politikoei sostengua emanez», azaltzen du elkartek berak, «eta sostengu honen atal garrantzitsu bat babes ekonomikoarena da». Horrela, denda solidario horretan bilduko den dirua, «oso-osorik, euskal presoei dituzten beharrik asetzeko asmoz erabiliko da».



## 50 bat lagun bildu ziren Zalakainen omenaldira

**Erredakzioa** ▶ 50 bat lagun elkartu ziren herenagun Miguel Zalakain billabonatarrari omenaldia egiteko, Belabietan. Eguraldi txarrak laguntzen ez bazuen ere, batzuk oinez egin zuten Zalakainen oroimenez jarritako monolitorako bidea.

Orain 15 urte zendu zen Zalakain Martuteneko espetxean, bihotzekoak jota, «espetxe politikaren ondorioz», igandean zehaztu zuten. «Egun ere hiltzen jarraitzen du», gaineratu zuten. Jose Anjel Altzuguren *Kotto*-ren heriotza gogoan. HITZA

ANOETA ▶ AGENDA 21

## Herri batzarra egingo dute gaur udaletxean

Tokiko Agenda 21aren baitan egiten den ekitaldietako bat da gaurko bilera

## ERREDAKZIOA

Ernioaldeko Udaltalde 21 osatzen duten herri guztietan (Aduna, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Villabona eta Zizurkil) herri batzarrak egiten ari dira asteotan. Gaurkoan Anoetari dagokio egitea. 19:30ean izango da, udal areto nagusian. Fidel Azpiroz Anoetako alkateak gutun baten azaltzen duenez, herritarren «iritziak eta proposamenak oso baliagarriak izango dira helburu zehatzak lortzeko». 2004ko urriaren 18an Ernioaldeko Udaltalde 21 eratu zuten eskualdeko zazpi udalerriek, konpromiso zehatz bat hartuz: Tokiko Agenda 21 eta garapen iraunkorra sustatzeko denen artean, Aalborg-eko Gutuna sinatuz. «Gutun hau sinatzen duten Europako udalerriek gizartea, ingurumena eta ekonomia hobetzearen alde lan egiteko konpromisoa hartzen dute, hobekuntza horiek iraunkorrak izan daitezkeen», dio Azpirozek.

Garapen iraunkorraz aritzean, besteak beste, ondorengo gaiak buruz ari dira: «Baliabide naturalak zaintzea eta babestea, eta energia, ura eta antzeko baliabideak orain baino kontu handiagoz erabil-

tzea. Gaur egun, munduko biztanle guztiak ez dira iristen herrialde industrializatuen bizi-kalitate mailara, eta honek jarraituz gero, ondoren datozen belaunaldiek ere ez dute horretarako aukerarik izango». Bestalde, «justizia soziala, herritarren oinarriko beharrak biltzen dituen, hala nola, osasuna, lana, etxebizitza...», aipatzen du ere. Mugikortasun iraunkorra ere beste puntu bat da: «Ingurumena errespetatzen duten garraio-bideei lehentasuna ematea, kalitateko garraio publikoaren alde egitea eta gure hiriak hobetzea hirigintza aldetik». Herritarren parte-hartzea ere zehazten da: «Arazo publikoetan parte-hartzea, denon artean irtenbiderik egokienak aurkitzeko».

Udaletxean Aalborg-eko Gutunaren ale bat eskuragarri dago. Bestalde, prozesuak irauten duen bitartean ekarpenik edo galderarik egin nahi izanez gero, ondorengo informazio telefonora dei daiteke: 943 69 25 36. Azkenik, alkateak «proiektu honetan parte-hartzeraz» gonbidatzen ditu herritarrek, «guztion artean etorkizun hobea lor dezagun bai herriarentzat eta baita herritarrontzat ere».

ANOETA ▶ GIZARTEA

## Begiraleak Gabonetako ludotekarako

Anoetako Udalak Gabonetako ludoteka jarriko du martxan aurten ere eta begiraleak behar ditu egitasmo horretarako. Abenduaren 26tik 30era eta urtarrilaren 2tik 5era egingo da ludoteka, 11:00etatik 13:00etara, ikastolan. Begirale bezala lan egin nahi duenak izena eman behar du abenduaren 13a baino lehen, udaletxean.

ANOETA ▶

## Jarduera fisikoari buruzko hitzaldia Alkartasun

*Hobetu zure bizi-kalitatea jarduera fisikoaren bidez* izena du gaur, 18:30ean, Alkartasuna Biltokian egingo den hitzaldia. Hizlaria Montse Otero izango da, eta jarduera fisikoari buruzko adibide praktikoak emateaz gain, entzunlegoaren zalan-tzei erantzun die.

ANOETA ▶

## GPSarekin orientatzeko ikastaroa

GPSarekin orientatzeko ikastaroa egingo da Anoetako Mendi Astearen baitan eta bi egunetan zehar emango da. Ikastaroa doan izango da, baina aurrera ateratzeko gutzieneko partaide kopurua behar da. Horrela, izena eman behar da udaletxean, abenduaren 2a baino lehen.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA ▶

# Mendiluze finalean da

Finalerdien bigarren itzuliko bi saio jokatu ostean, Aitor Mendiluzek finalerako txartela lortu du; Amaia Agirrek eta Jexux Mari Irazuk aldiz, agur esan diote BECen kantatzeko ametsari

JULEN GOIKOETXEA

2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiari gero eta gutxiago geratzen zaio datorren abenduaren 18an BECen zein zortzi bertsolarik kantatuko duten jakiteko. Aurrez, bagenekizkien biren izenak, Egaña eta Lujanbio, baina beste sei txartel ari dira erabakitzen finalaurrekoetako bigarren itzuliko saioetan. Asteburuan bi saio jokatu dira, Urretxun eta Beran, eta falta den azken saioa, datorren igandean, abenduak 4, jokatu da Donostiako Atano III.a pilotalekuan, arratsaldeko bostetatik aurrera.

Kanpoko hotzak ahaztuta igo ziren larunbat arratsaldean Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu, Jon Martin, Xabier Paia eta Arkaitz Estiballes Urretxuko Ederrena pilotalekuko taulara. Frontoian giroa bero-bero zen ordurako, eta sei bertsolariek saio ona eskaini zuten. Irurari bizi den Aitor Mendiluze izan zen guztietan onena, Jexux Irazu larrauldarren eta Xabier Paiaaren aurretik. Guztira, 742,5 puntu lortu zituen Mendiluzek eta bertsoan ondo eginaz BECen izateko txartela lortu zuen. Jexux Mari Irazuk ere lan polita egin zuen larunbatean. Saioan bigarren postuan geratu zen 725 punturekin, baina lehen finalerdian lortutako puntuazio baxua dela eta finaletik at geratu da. Eskualdeko hirugarren ordezkaria Amaia Agirre billabonatarra izan zen: lehen finalerdian lortutako puntuazioarekin finalean izateko aukeraren bat bazuen, baina azkenean 710,5 puntu lortu zituen laugarren postua lortuz, eta ez du izango finalean egotetik. Agirreraren puntuazioak zer esan dezente eman du; izan ere, askoren ustez merezitakoak baino puntu gutxiago eman zizkion epaimahaiaik.

Igandean, bestalde, Beran jokatu zen finalaurrekoetako bigarren saioa. Bertan Amets Arzallus, Etxahun Lekue, Fredi Paia, Iñigo Manzisidor, Jon Maia eta Sustrai Colina aritu ziren nor baino nor. Beste behin ere, Amets Arzallusek bere nagusitasuna agerian utzi zuen puntuaziorik altuena lortuz. 778 puntu lortu zituen, bigarren izan zen Jon Maiak baino 37 gehiago. Bi horien atzetik sailkatu ziren, hurrenez hurren, Sustrai Colina, Fredi Paia,



Aitor Mendiluzek BECeko finalean kantatzeko txartela lortu zuen larunbatean. BERTSOTZAILER ELKARTEA

Etxahun Lekue eta Iñigo Manzisidor. Gauzak honela, esan daiteke Mendiluzerekin batera Arzallus eta Maia ere BECen izango direla abenduaren 18ko final handian.

Asteburuan gertatutakoaren inguruan aritu da solasean HITZA. Alde batetik, Agirrerekin eta jada finalean den Mendiluzerekin —Irazurekin harremanetan jartzen saiatu gara, baina ezin izan dugu harekin hitz egin—. Bestetik, adituen iritzia ere jaso nahi izan dugu, eta kanpotik gauzak nola ikusten dituen galdetu diogu Anjel Mari Peñagarikano bertsolariari.

**Asteburuko saioak.** Saio onak izan direla adierazi dute Mendiluzek, Agirrek eta Peñagarikanok. Mendiluzeren hitzetan, «gure saioa txukuna izan zen punta-puntakoa izan gabe, baina gustura geratu nintzen egindako lanarekin». Amaia Agirre ere iritzi berekoa da: «Nahiz eta finaletik at geratu, egindako lanarekin ez naiz kezkatzen. Peñagarikanok ere oso ondo ikusi ditu asteburuan bailarako bertsolariak. «Amaia oso sendo eta txukun ikusi nuen. Irazu ere aurrekoan baino askoz hobeto aritu zen, txisparekin; eta Aitor Mendiluze maisuen pare aritu zen larunbatean Urretxun». Gainerantz, hirurak bat etorri dira Amets Arzallusen nagusitasuna aipatzean. Mendiluzeren ustez saio txukunak izan arren, gorabehera batzuk ere izan di-

tuzte. «Batzuegandik gehiago espero zen; beste batzuek aldiz, gorakada nabarmena eman dute eta hori ona da bertsolaritzaren munduarentzat, zalantzarik gabe».

**BECeko finalaz.** «Nik Maialenen aldeko apustua egiten jarraitzen dut. Hala ere, ez naiz Amets bezalako bertsolariez ahazten. Txapelketa osoan zehar erakutsi du bere buruarengan konfiantza handia duela eta, zalantzarik gabe, kontuan hartzeko bertsolaria da. Bestalde, Aitor Mendiluze finalean ondo ariko dela uste dut. Mendiluze egoera zailen aurrean hazi egiten da, eta finala leku paregabea du hori erakusteko». Hori da Amaia Agirreraren iritzia. Mendiluzerena ere antzekoa da: «Aurten maila inoiz baino berdinduagoa dago eta hori ona da txapelketarentzat. Amets oso ondo ikusten dut, baina ezin dira ahaztu ere Unai Iturriaga eta Igor elortza. Nahiz eta hauei azken finalerdia jokatzea falta zaien, ez lukete arazorik izan behar BECen egoteko». Peñagarikanok ere

biren arteko kontua ez dela izango aipatu digu. «Badakigu Andoni Egaña maisu bat dela, baina aurten txapela jantzi nahi badu, gogotik egin beharko du lan; izan ere, lehia estua izango da».

**Finaleko azken tokiak.** Hemen ere lehia estua aurreikusten dela adierazi diote HITZARI Mendiluzek, Agirrek eta Peñak. Aitor Mendiluzeren ustez Unai Iturriaga eta Igor Elortza ziurtzat jo daitezke. «Hauek biek ez lukete arazorik izan behar finalera sailkatzeko. Geratzen den azken txartela dago oso garesti. Oraingo, Sustrai Colina da bere jabe, baina hurrengo igandeko saioan badira hainbat hautagai txartel horren jabe egiteko. Baina igandeko saioa ezberdina izango dela iruditzen zait. Oraindik aukerak dituztenek, Uranga, Sarriegi... presiopean kantatuko dute. Hauek badakite saio ona egin behar dutela finalean izan nahi badute eta horrek presio handia ematen du». Amaia Agirrek ere antzeko ustea du. Billabonatarren ustez, Iturriagak

## SAILKAPENA ▶

Finalaurrekoen bigarren itzuliko saio baten faltan, hauxe da sailkapena:

Izena	Puntuak
1. Amets Arzallus	1566,5
2. Jon Maia	1510
<b>3. Aitor Mendiluze</b>	<b>1505,5</b>
4. Sustrai Colina	1455,5
5. Xabier Paia	1450,5
<b>6. Amaia Agirre</b>	<b>1450</b>
7. Fredi Paia	1444,5
<b>8. Jexux Mari Irazu</b>	<b>1442</b>
9. Jon Martin	1411
10. Arkaitz Estiballes	1411
11. Etxahun Lekue	1390
12. Iñigo Manzisidor	1333,5

Honakoak dira igandean Donostian kantatuko dutenak:

13. Unai Iturriaga	774
14. Igor Elortza	772,5
15. Aitor Sarriegi	735
16. Jokin Uranga	731,5
17. Arkaitz Goikoetxea	724
18. Elkaitz Goikoetxea	712

eta Elortzak ez lukete arazorik izan behar: «Bi horiek finalean daudela esan liteke. Azken toki horretarako dago borroka estua. Hautagai ezberdinak daude, eta azken saioan dena erabakiko da. Donostiako finalerdi horri begira, Aitor Sarriegi eta Jokin Uranga ikusten ditut finalean izateko aukerarekin. Dena den, presio handia izango dute gainean eta horrek norbaitengandik eragina izan dezake, finalean izateko aukera guztiak galdutakoak». Azkenik, Anjel Mari Peñagarikanok ere eman digu bere iritzia: «Iturriaga eta Elortza finalean ikusten ditut. Ez sailkatzeko hondamendiren bat gertatu beharko luke. Azken tokiak, Urangaren, Arkaitz Goikoetxearen, Sarriegiren eta Colinaren artean jokatu dute. Igandeko lehia gogorra izango da».

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Abenduaren 3an Euskararen Eguna izango da, eta hainbat ekitaldi burutuko dira egun horren harira. Nola ikusten duzue euskararen egoera eskualdean? Zer dago ospatzeko? Zer dago hobetzeko?

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Motorra.** KTM EXC 250 endurokoa. 2005ekoa. Matrikulatuta. Egoera onean. Deitu 618 254 960 telefono zenbakira  
**Autoa.** Renault Space. Motorra 2.200 DCI. 2001ekoa. Deitu 649 89

98 03 telefono zenbakira.

### LANA

**Beltza.** Neska bat behar da kafetegirako. Arratsaldeko larunbata izan ezik. Igandea jai. Deitu 943 67 04 46 telefono zenbakira.

## IBARRA ▶

**Bihar Batzar Orokorra egingo dute Uzturpen**

Aurtengo ikasturteari dagokion batzarra da; langile eta guraso guztiei egin diete deia

## I. TERRADILLOS

Ibarrako Uzturpe Ikastolatik jakinarazi dutenez, bihar burutuko dute ohiko Batzar Orokorra. Hain zuzen ere, Uzturpe Ikastolako kooperatibaren Estatutu Sozialetan ezarritakoaren arabera, 2005-2006 ikasturteari dagokion Batzarra izango da, eta hori dela-eta langileei nahiz bertako ikasleen guraso guztiei egiten die deia Ikastolako Errektore Kontseiluak, «ikastolako kide guztiok elkartu eta gure berriak ezagutarazteko aukera ederra izango baita». Batzarra Ikastolako areto nagusian egingo da, eta 19:30ean izango da lehenengo deialdia, eta 20:00etan, berri, bigarrena.

Ondorengo gaiez jardungo dute, hain zuzen ere, bihar egingo duten batzarrean: Errektore Kontseiluko lehen-dakariaren agurra; bi bazkideen izendatzea akta onartzeko; Kontseilu Errektorearen berriak; ekonomiari dagokion balantzea eta aurrekontuen onartzea; Ikastola, Haur Eskola eta Ludotekako hobekuntzak eta batzordeetako informazioa.

Azkenik, batzarrari amaiera emateko, ohikoa den moduan, galde-eskeen tartea zabalduko dute.

## IBARRA ▶ GIZARTEA

**Inauguratu dituzte Azkue auzoko 37 etxebizitza sozialak**

Ostiralean kontratua sinatu eta giltzak jasoko dituzte; 120 eurotik 180ra bitarteko alokairua ordainduko dute



Chelo Romeo Ibarro alkatea eta Javier Madrazo Etxebizitza sailburua. I. TERRADILLOS



Etxebizitza barrutik ikusteko aukera izan zuten atzo horiek egokitu zaizkien herritarrek. I. TERRADILLOS

## IÑIGO TERRADILLOS

Zozketa burutu zenetik bi urte eta lau hilabete igaro direnean inauguratu zituzten, atzo, Ibarroko Azkue auzoan eraikitako 37 etxebizitza sozialak. Ekitaldian izan ziren Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte sailburua, Chelo Romeo Ibarro alkatea eta etxebizitza egokitu zaizkien herritarrek.

Hain zuzen ere, 2003ko uztailaren 11n egin zuten Ibarroko

Belabieta kiroldegian Azkue eraiki dituzten etxebizitza sozialak zozketa, eta atzo izan zuten aurrerantzean bertan alokairuan biziko diren herritarrek euren etxebizitza ikusteko aukera. Eta, halaber, ostiralean kontratuak sinatu eta giltzak jasoko dituzte.

Ekitaldian, etxebizitza egun dituzten salneurri handiez jardun zuten Javier Madrazok, eta «inauguratu berri ditugun bezalako etxebizitzekin, errenta edo soldata baxua duten per-

tsonei euren bizilekua izan dezaten ari gara lanean». 15.200 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familiei zuzenduriko etxebizitzak direla azaldu zuten, eta 120 eurotik 180 euro bitarteko alokairua dela ordaindu beharko dutena.

**Etxebizitza hutsak**

Bestalde, hutsik dauden etxebizitzak inguruan ere jardun zuten Madrazok. Euskal Autonomia Erkidegoan 2.000 etxe-

## DATUAK ▶

Ezaugarri hauek dituzte Azkue auzoan inauguraturiko 37 etxebizitza sozialek:

**2 eraikin:** Batak 16 etxebizitza, eta 21 besteak. 7 etxebizitza solairu bakoitzean.

**Pisuen ezaugarriak:**

- ▶ 21 etxebizitza: bi logela, garajea eta trasterkeua.
- ▶ 16 etxebizitza: hiru logela, garajea eta trasterkeua. 2 etxebizitza mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonentzat egokituak.

**Eraikuntzaren kalitatea:**

- ▶ Hormigoizko egitura.
- ▶ Zeramikazko teila lauarekiko teilatua.
- ▶ Fatxadun zeramikazko ibitura.

- ▶ Bistako adreiluzko bukaera.

**Obra:**

- ▶ Proiektuaren diseinua: Jose Karlos Kastro arkitektoa.
- ▶ Eraikitzailea: IZA, Promociones y Construcciones.
- ▶ Sustatzailea: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saila.
- ▶ Kudeatzailea: Alokabide.
- ▶ Aurrekontua: 3,5 milioi euro.

bizitza hutsik aurkitzen direla esan zuten, horietatik 400 Gipuzkoan; 4 Ibarro kokatzen dira. Hala, egun dauden beharrrak kontuan hartuta, ezinezkoa dela horrela jarraitzea eta horiek alokairuan jartzea dela beraien helburua zehaztu zuten sailburuak. Horretarako, jabeekin daudela harremanetan, eta duten asmoa gobernuak alokairuaren zati bat ordaintzea izango dela adierazi zuten, «beharrak dituztenek ordaintzeko modukoa izan dadin».

**Tolosako Udala**

## IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek 2005eko azaroaren 14an hartutako erabakiaren bidez, hesierako onespina eman zion honako proiektu honi:

E-46 "Berazubi Mendebalde" eremuko Barne Eraberritze Plan Berezia.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, hamabost lanegun (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendaurrean jarrita egongo da, Urzuru Legearen 1976ko Testu Bateratuaren 43. eta 41. artikuluek, Hirigintza Planeamendu Arautegiko 147ak eta Eusko Legebiltzarraren Planingintza Tresnen eta Hirigintza Gestioaren tramitazioari buruzko ekainaren 30eko 17/94 Legearen 6.ak xedatuaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrn, Hitz eta Diario Vascon argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Udaleko Hirigintza Bulegoetan (Plaza Zarra, 6-B) agerian egongo da, aipameneko epean, Alegazio edo erreklamazioak alkatari zuzendu behar zaizkio eta Udaleko Sarriena Erregistroan aurkeztu.

Tolosa, 2005eko azaroaren 22an.

ALKATEA

## IBARRA ▶ KULTURA

**Babarrun ekoizleak omendurik**

**Erredakzioa ▶** Tolosako Babarrun Kofradiak Ibarroko babarrun ekoizleak omendu zituen herenegun. Urtero eskualdeko herri bat aukeratzen dute omentzeko, eta aurtengoan Ibarroko babarrun ekoizleez gain, pipar ekoizleak ere omendu nahi izan dituzte. Ibarroko udaletxean egin zen ekitaldian izan ziren Chelo Romeo eta Jokin Bildarratz Ibarroko eta Tolosako alkateak eta kofradiako ordezkariak. AINHOA CALLEJA

LEITZA ▶ FUTBOLA

# Biei partiduak bertan behera gelditu zaizkie

Eguraldi kaskarra medio, Aurrerako bi taldeek ez dute jokatzetik izan



Otsailekoan ere, aurreko denboraldian, ondorioak eragin zituen. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Aurrerako bi futbol taldeek, heldu nahiz gazteenak, ez dute partiduak jokatzetik izan aste-buru honetan, «zegoen eguraldi kaskarragatik», arrazoitu zuten.

Biek hala biek ere larunbatean, arratsaldean, zituzten partiduak, helduek Altsasun eta gazteek etxean; eta eguraldi hotza ez ezik, zelaian elurra ere bazegoenez, partiduak bertan behera utzi zituzten. Beraz, jardunaldi honetakoak aurrerago jokatu beharko dituzte bi taldeek «astebururen bateko hutsarteren bat baliatu beharko da horretarako», halaxe adierazi zioten HITZARI talde gazteko kideek.

Gauzak horrela, Ligako egutegiari erreparatu gero, datoren abenduaren 11koa izanen dute hurrengo jardunaldia, helduek San Inazio izanen dute

arerio, Arkixkil futbol zelaian; gazteei ere, kasualitatez, talde bereko gazteen aurka jokatzeko egokitzen zaie, baina kanpoan, Iruñean, beraz. Gurean larunbatean, Xabierko Frantziskoren Eguna eta Nafarroaren Eguna izaki, hasiko den abenduko zubi luze hau dela tarteko, ez baita futbol jardunaldirik izanen bi aste-buru jarraietan.

Hain zuzen ere, «akaso», zioten, «hurrengo egun hauetako jairen bat baliatuko dugu partiduak berreskuratzeko», azaldu zuten. Edozein moduz, «era batera edo bestera, hori beste taldeekin eta Federazioarekin ere adostu eta hitzartu beharreko kontua da», baieztatu zuten. Oraingoz, beraz, ez dago deus ere zehazturik.

Pasa den denboraldian, gogoratu behar da, otsailean izandako elurte hark ere partidu pare baten atzerapena eragin zuela.

GIZARTEA ▶



## Azken ostiralean, euskal presoen defentsan

J. Astibia ▶ Hilabeteko azken ostiraleko Etxerat-en deialdiekin bat egin zuten gure eskualde-etako herritarrek ere eta oraingoz ere —irudian Leitzako elkarretaratzea— «euskal preso politikoaren eskubideen alde» kalera atera ziren ehunka lagun. Guztietan gogora ekarri zuten «gaur egun 674 euskal herritar preso» daudela,

eta zehaztu zuten, «hauetatik guztietatik 15 bakarrik daukate Euskal Herrian dauden kartzeletan espetxeraturik», eta presoek eta senideek «aurkako heriotz zigor hau behingoz» amaitu dadin, «esijitu» zuten. Era berean, euskal presoek «estatus politikoa aitortzea» ere aldarrikatu zuten. J. ASTIBIA

ELURTEA ▶



## Negu honetako lehenbizikoa igaro dela dirudi

J. Astibia ▶ Ez da iragarri hainakoa izan, baina bai ohitzen hasteko modukoa. Ostiralean, goizean mendiak zurituta esnatu eta gauean herria ere halaxe zela lotaratu ziren Leitza eta Areson. Azken elur jasa igande arratsaldean egin zuen. Bitartean hotza bazterretan: berdentzabarteko izotza ez zen bromakoa, etxe atarrietan zeuden

elur lapastak koilatu utzi zituen eta. Hotzberoei dagokionez, Luisenbordako meteorologia estazioan jaso zituzten datuei erreparatu, atzo goizean markatuta zegoen minimoa 0° C-koa zen, bat gutxiago, -1°C egin zituen larunbatetik iganderako gauean. Irudian, Aritz eta Axusteren erdian, atzean, Txindoki, Leitzatik. J. ASTIBIA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 29a, asteartea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

9

hotzera

8

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN

Guardetxe:

gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:

gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argituko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Altzo.** Ardo-dastatze ikastaroa, 20 ordukoa. Urtarrilean hasiko den arren, orain da izena emateko unea. Bihar da azken eguna, udaletxean.  
**Anoeta.** Udaltalde 21 Ernioaldeak herri batzarra antolatuta du, Tokiko Agenda 21aren baitan. 19:30ean, udaletxean.  
**Ibarra.** Urtero bezala, San Bartolome parrokiako Misio taldeak Merkatu Txikia antolatuta du. India, Honduras eta Ekuadorra bidaliko dute jasotako laguntza. Materiala parrokiako lokaletan utz daiteke, 17:00etatik 20:30era.  
**Leitza.** Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Euskara Zerbitzuak haurrentzako aisialdi tailerrak antolatuta ditu Eguberrietako oporraldietarako. Begiraleak behar dituzte, eta dagoeneko zabaldu dute izen-ematea.

Interesa duenak Euskara Zerbitzura jo behar du (948 51 08 14).  
**Tolosa.** Tolosaldeko Triatloi Taldeak bilera garrantzitsura deitu du gaur, asteartea. Taldean aritutakoei zein triatloian aritu eta taldekide izan nahi duen jende berriari dago zuzenduta bilera. Bertan taldearen inguruko informazioa emango dute, eta aurrera begirako erabakiak hartuko dituzte. 19:00etan da hitzordua, Kultur Etxean.  
**Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeak ludoteka antolatuta du Eguberrietan, abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra, astegunez, 09:00etatik 13:30era. Izena eman nahi duenak orain du aukera, Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6).

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** *Ibailde* erakusketa,

ibaien kalitateari eta urari buruz. Kultur Etxean, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara.  
**Tolosa.** *Txinara leihoa* txotxongilo erakusketa, Aranburu Jauregian. Egunero, 17:00etatik 20:00etara —asteburuetan baita 12:00etatik 14:00etara ere—.  
**Tolosa.** Palestinari buruzko erakusketa, Kultur Etxeko bigarren solairuko gelan.

### TITIRIJA

**Tolosa.** Bulgariako Targovishte-ren *Haurra eta haizea* txotxongilo emanaldia, 17:30ean, Gorosabelen; Txinako Quanzhouren *Ilusioaren harira*, 18:30ean, Kultur Etxean; eta Kataluniako Valeria Gugliettriren *Ez ikutu nire eskuak* emanaldia, 22:30ean, Kasinon.

### HITZALDIAK

**Leitza.** Olatz Aldabatreku pedagoak *Jostailu eta jolas kooperatiboak* hitzaldia emanen du Erietako jantokian, gurasoentzat, 15:00etatik 16:30era. Ondoren, 18:30ak arte, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako haurrentzako jokoak.  
**Tolosa.** *Nola lagundu gure seme-alabei ikasketetan?* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleen gurasoentzat. 19:00etan, Orixe institutuan. Xabier Tolosa orientatzailearen eskutik.

### ZINE-KLUBA

**Alegia.** Fatih Akim zuzendariaren *Contra la pared* filma. Bihar, 21:30ean, Gaztetxean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Olarreaga, A. Korreo, 2. 943 67 01 28.

### IRRATIA

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
**11:00-14:00.** *Tolosaldeko Aho*tsa magazina: 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, albisteak, oharrak...; eskualdeko ekitaldien agenda, iritziak, elkarrizketak, albisteak...; Tolosako azokaren berri Pablo Alberdiren; lehiaketa eta disko eskainiak.  
**18:00-19:00.** *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.  
**19:00-21:00.** *Tolosaldeko Aho*tsa (errepikapena).  
**21:00-22:00.** *Zaharrak berri*, Irulegi Irratiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
**22:00-23:00.** *Street Noise* musika saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

## AGURRAK ▶



### ZORIONAK

Joxepa eta Joxe Inaxio. Gaur 60 urte ezkondu zirela. Zorionak seme-alaba, biloba eta birloben partetik. Ondo pasa. Muxu handi bat.

# HITZA,

## zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

## hitza txokoa lagunen

▶ HITZA harpidedunen artean...

...POXPOLO, MOKOLO TA KONPAINIAREN  
"Eskola ta festa" 10 DVD zozketatuko ditugu.  
Zozketan parte hartzeko deitu: 943 65 56 95 telefonora.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero